

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 673/2024 Erabakia, azaroaren 19koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan sortzen ari diren gaixotasunek eragindako kalteetarako laguntzen eta Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 18/2024 Foru Dekretuak onetsi zuen deialdirako bideratutako kreditua handitzeari**

Nekazaritza Zuzendaritzako Abeltzaintza Zerbitzuak proposatu du ebaztea Arabako Lurralde Historikoan sortzen ari diren gaixotasunek eragindako kalteetarako laguntza lerroaren oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 18/2024 Foru Dekretuan ezarritakoaren babesean emandako laguntzen 2024rako deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 18/2024 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoan sortzen ari diren gaixotasunek eragindako kalteetarako laguntza lerroaren oinarri arautzaileei, bai eta 2024rako deialdiari ere, eta 400.000,00 euroko kreditu erreserba egin zen, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuko 40100G./419400/47900403 "Nekazaritzako ustiategiei laguntzeko neurriak" partidaren kontura. Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere (deialdiko gehikuntza ehuneko: ehuneko100).

Foru dekretua ALHAOn argitaratu zen 2024ko abuztuaren 19an, eta hurrengo egunean sartuko zela indarrean ezarri zen.

Oinarri arautzaileen 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eman beharreko kopuruaren hainbanaketa ez egiteko, deialdi honetara bideratutako kreditua handitzea proposatzen da, espediente guztiak izapidetu ondoren.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea kreditua handitzeari Arabako Lurralde Historikoan sortzen ari diren gaixotasunek eragindako kalteetarako laguntzen deialdirako, zeina onetsi baitzuen 2024rako deialdia eta oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 18/2024 Foru Dekretuak. Kreditu gehikuntza 29.660,00 eurokoa izango da, eta behin betiko azken kreditua 429.660,00 euro.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 29.660,00 euro esleitu ditzala, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023rako ekitaldirako gastu aurrekontuko 40100G./419400/47900403 "Nekazaritzako ustiategiei laguntzeko neurriak" partidaren kontura.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 20a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritzaren Saileko foru diputatua*

**NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA**

*Nekazaritza zuzendaria*

**DAVID FERNÁNDEZ SARABIA**